

HERRITARREK EUSKARA IKASTEKO % 100EKO DIRULAGUNTZA HARTZEKO AUKERA DUTE BORTZIRIETAN

Bortzirietako Euskaltegian eta helduen ikastegietan matrikulatzeko epea irekiko den honetan, euskara mankomunitateak matrikulazioen eta dirulaguntzen azken urteotako bilakaerari buruzko informazioa partekatu nahi du eragile zein herritarrekin. Hartara, euskara ez dakiten herritarrak euskaltegian izen ematera gonbidatu nahi ditu, baita herritar guziak ere, oro har, euren euskara maila landu dezaten. Bortzirietako Euskaltegian izen emateko epea irailaren 1etik 30era egonen da irekita eta euskara ikasleek dirulaguntza eskatzeko lehenbiziko epea urriaren 10era arte.

2016an Bortzirietako Euskara Mankomunitateak dirulaguntza sistema berria jarri zuen abian, doakotasuna helburu duena. Harrez geroztik, izen emateetan beheranzko joera eten zen eta gorabeherak izan badira ere, oro har, azken hamarkadan izen emateek goiti egin dute. Nabarmenezko da sustraian eskualdetik urrun dituzten herritar aunitzek eman duela euskara ikasteko urratsa azken urteotan. Euskara ikasteko interesa eta gogoia herritar gehiagorengan piztu izana poztekoa bada ere, bereziki euskara euren harreman eta familia ingurunean ez duten herritarrengana ailegatu nahi dugu abiatzear den matrikulazio aldi honetan, baita zaugarrienengana ere.

Aurten, Bortzirietako Euskaltegiak berariaz egingen duen matrikulazio kanpaina indartzeko honako jarduera eta ekitaldiak aurreikusi ditu euskara mankomunitateak:

- Irailean zehar udalek bandoa zabalduko dute udalerrian barrena.
- Irailaren 15ean, prentsaurrekoa egingen dute mankomunitateko ordezkariak Bortzirietako euskaltegi irakasle eta ikasleekin, Beran, Beralandetan, 11:30ean.
- Irailaren 19an, Maite Larbururen kontzertua izanen da Beran, Kultur Etxean, 20:00etan.
- Irailaren akabailan, euskara mankomunitateak mezua bidaliko die ikastetxe eta guraso elkartei matrikulazioari eta dirulaguntzei buruzko informazioa euren sarren bidez zabal dezaten.

Asteotan euskara mankomunitatea 2026-2031 urte bitarteko euskararen plan estrategikoa prestatzen ari da. Eragile eta herritarrekin izan ditugun elkarriketetatik honako ondorio hauek ateratu ditugu helduen euskalduntzeari dagokion: euskara euren ingurunetik urrunago duten herritarrentzat eta bereziki immigrazioko jatorria dutenentzat informazioa irisgarriago egin behar dugu. Euskara mankomunitateak abian duen dirulaguntza sistemaren ezaugarriak aski ezagunak direla uste izan dugu azken urteotan, doakotasuna helburu duen sistema abiatzeko dezenteko oihartzun komunikatiboa izan baitzuen. Ordea, bizilagun berriak ailegatu dira gurera, eta ohartu gara aunitzek ez dakitela Bortzirietako euskara ikasteko dirulaguntzen berezitasunen berri: bertaratze eta aprobetxamendu baldintza batzuk betez gero euskara ikasteko dirulaguntza % 100koa da, eta dirulaguntzaren zatirik handiena ikasturtea hasi eta denbora gutira hartzen ahal da. Euskal Herrian adibide bakanetakoa da, eta euskara mankomunitateak bide hori hartu zuen euskara ikastea herritar guziona eskubidea delako eta ondorioz doakoa beharko lukeelako.

Deialdiaren ezaugarri nagusiak aletuko ditugu jarraian:

- Bortzirietan erroldatuta dauden ikasleen ohiko euskara ikastaroak % 100ean diruz laguntzen dira. Ikastaro hori hartzen deneko helduen euskalduntzeko ikastegiak ez du zertan Bortzirietan egon.
- Dirulaguntzaren muga 700 € da ikastaro bakoitzeko.
- Urtean zehar ikastaro bat baino gehiago egiten ahal da, erraterako, ohiko ikastaroa eta barnetegi bat.

- Zenbateko osoa hartzeko % 85eko bertaratzea gainditu behar da. Arrazoitutako 14 huts egite egiten ahal dira, alegia, horiek ez dute huts egite bezala kontatzen. Jende aunitzek laneko egoera ezegonkorrak ditu (ordutegi aldaketak, luzatzeak, iraupen laburreko lanak eta ordutegi aldaketa dakarren lan berri batean hasia, etab.), eta baldintza zaila irudi lezake betetzeko. Hala ere, kontuan izan behar da % 50eko bertaratzea gaindituta, dirulaguntzaren % 75 hartzen ahal dela. Beraz, lan egoera eragozpena den kasuetan ere, aukera bada dirulaguntzaren zatirik handiena hartzeko. Konparazio batera, 350 €ko kostua duen ikastaro bategatik, % 50etik % 85era bitarteko bertaratze mailarekin, ikasleak 262,50 € jasoko lituzke, eta bere sakelatik paratu behar lituzke 87,50 €. Mankomunitatearen asmoa da aurrerantzean dirulaguntza sistema garatzen joatean kalteberak diren herritarrek euskara ikasteko oztopoak izan ez ditzaten. Egoera zaurgarria dela eta baldintza hauek betetzea zaila den herritarren kasuan, alternatibak aztertzeak prest geundeke.
- Euskara mankomunitateak euskara ikasteko ematen duen dirulaguntzaren bertze ezaugarri bereizgarria honakoa da, zatirik handiena (% 75) ikasturtea hasi eta agudo xamar (azaro-abenduan) ordaintzen zaiela ikasleei, hala eskatzen badute. Dirulaguntza aitzinatzea doakotasunera hurbiltzeko neurria da. Egia da ikasleak ikastaroaren ordainketa osoa egin behar duela urrian eta ordainagiri hori erakutsi behar diola mankomunitateari dirulaguntza eskatzeko. Baina Bortzirietako Euskaltegiak kasuan kasuko neurriak hartzen ditu, ikasturte hasierako ordainketa hori sobera bada ikaslearentzat, hasierako ordainketa hori errazteko.
- [Eskaera telematikoa](#) edo orain arte ohikoak izan diren bideetatik egiten ahal da. Bi kasuetan, euskara mankomunitatean eta euskaltegiaren laguntza izanen du euskara ikasleak, izapidea garaiz eta behar bezala egin ahal izateko.

Herritarrek euskara ikasteko dirulaguntza eskatzen ahal dute euskara mankomunitatean. Lehenbiziko epea irekita egonen da irailaren 1etik urriaren 10era. Informazio guztia [hemen](#).

INTERESEKO DATUAK

- MATRIKULAZIOEN BILAKAERA BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIAN

	2015-2016	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024	2024-2025
GUZTIRA	45	68	54	70	52	56	49	75	53	56
EH-tik kanpo jaio					29	19	19	31	20	21

Iturria: Bortzirietako Euskaltegia, Bortzirietako Euskara Mankomunitateak landuak.
Ikasle bat bi ikastarotan, A2.1en eta online.

Bortzirietako euskaltegian azken urteotan 8 talde izan dira, A1 mailatik hasi eta C1eraino. Ikastaro gehienak aurrez aurrekoak dira, baina badira online motakoak.

- MATRIKULAZIOA HERRIZ HERRI

	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2023-2024	2024-2025	%
ARANTZA	0	3	1		1	0	9	1	1	1,8
BERA	35	23	46	29	30	23	36	24	27	49,1
ETXALAR	7	7	7	4	2	5	5	2	6	10,9
IGANTZI	6	4	3	2	1	2	7	3	5	9,1
LESAKA	20	15	12	14	20	15	15	16	12	21,8
BERTZE		2	1	3	2	4	3	7	4	7,3
GUZTIRA	68	54	70	52	56	49	75	53	55	100,0

Iturria: Bortziriako Euskaltegia, Bortziriako Euskara Mankomunitateak landuak.

- MATRIKULAZIOA ETA GENEROA**

	2016-2017	2017-2018	2018-2019	2019-2020	2020-2021	2021-2022	2022-2023	2022-2023	2023-2024	2024-2025	%
EMAKUMEZKOAK	47	34	45	29	31	27	48	26		32	58,2
GIZONEZKOAK	21	20	25	23	25	22	27	17		23	41,8
GUZTIRA	68	54	70	52	56	49	75	53		55	100,0

Iturria: Bortziriako Euskaltegia, Bortziriako Euskara Mankomunitateak landuak.

- EUSKAL HERRITIK KANPO SORTUTAKO IKASLEAK ETA JATORRIAK**

	2024-2025
ARGENTINA	2
ALEMANIA	2
BRASIL	2
DOMINIKAR ERREPUBLIKA	1
EKUADOR	1
ERRUMANIA	1
ESPAINIA	5
FRANTZIA	1
HERRIALDE KATALANAK	3
NORVEGIA	1
VENEZUELA	2
GUZTIRA	21

Bortziriako Euskaltegiko ikasleen artean % 37,5 Euskal Herritik kanpo sortua da. Datu hori hagitz baikortzat jotzen du euskara mankomunitateak. Nabarmentzekoa da aniztasuna eta etorkizunean pentsatzekoa da areagotuko dela.

BORTZIRIETAKO EUSKARA MANKOMUNITATEAK EUSKARA IKASLEEI EMANDAKO DIRULAGUNTZAK ZENBAKITAN

DIRULAGUNTZEN ESKAERAK ETA ZENBATEKOAK 2020-2025							
	ESKAERAK IRAILA	DIRULAGUNTZA	ESKAERAK EKAINA	DIRULAGUNTZA	BALDINTZAK BETE EZ	DIRULAGUNTZA BUELTRAN	GUZTIRA
2020-2021	48	12.460,00 €	53	5.800,00 €	0	- €	18.260,00 €
2021-2022	41	10.713,00 €	46	4.675,00 €	0	- €	15.388,00 €
2022-2023	59	15.550,00 €	73	8.410,00 €	2	525,00 €	23.435,00 €
2023-2024	55	12.040,72 €	43	4.445,59 €	2	524,00 €	11.559,72 €
2024-2025	48	12.676,77 €	44	3.857,50 €	2	354,27 €	16.180,00 €
							84.822,72 €

Horrez gain, Bortziriako Euskara Mankomunitateak hitzarmen bidez Bortziriako Euskaltegiari dirulaguntza ematen dio, euskararen biziberritzean lehentasunezko eta funtsezkoa eragilea izanik.

[2025eko hitzarmena BEM-Bortziriako Euskaltegia](#)

Arantzan, 2025eko abuztuaren 7an



Urko Ikardo Enparan
Bortziriako Euskara Mankomunitateko euskara teknikaria